

Sagardotegiak leen eta orain

JOXE AIERBE

Otsaila'ren azkeneko egunean ari naiz idazten. Aitaren batean joan zaizkigu urtearen lenengo bi illak. Egunak luzatzen dijoazen aiñean giroa ere epeltzen eta esan genezake Udaberriaren atarian aurkitzen geraia. Aldi berean, zalea danak ondo asko dakin bezela, sagardoa txotxetik edateko garai bete-betean aurkitzen gera. Ez da giro oraintxe sagardotegietan!

Udarregi zanaren bertso baten bukaerak onela dio: «Gure kolejiyuak sagardotegiyak». Guk ez genituan ezagutu, jakiña, ordukoak, baiña gure irudimen kaxkarrari ateak zabalduz, ainbat eta ainbat baserritan, sagarra pisoiarekin jota dena eskuz egindako sagardoz beteriko zurezko kupeltxoak ikusten ditugu ikullutik oso gertuan. Eta sagardotegi aietan, bluxa beltza jantzi, ogi koskor bat eta sardin zaara edo bakallau zatiren bat artuta, sagardoaren aitzakian, kaletarren bat ere bai agian, baiña erderaz etzekiten inguruko baserritarrak alkarrengana bilduta, kontu-kontari edo bertsoan ari diraneko irudia datorkigu burura.

Gaur berriz, baserrietan gutxi, baiña bestela erabat mekanizatutako tolare eta antolaketak. Eta oizko kupelen orde, zenbait tokitan, altzairuzko depositoak ere ikus daitezke. Sagardotegi gutxiago, baiña egiten dituzten sagardo putzuak izugarriak. Millaka litro asko bakoitzean. Sagardo bezela, lengoa ala oraingoa ohea... guk ezin esan ori. Baiña aldea egongo ezpairik gabe.

Aldea, eta ez nolanaikoa, biltzen dan jendetzan eta bere jatorrian dago: kaletarrek artu duten joeran alegia. Gaur alderantziz gertatzen da, amar kaleta ba'dira, baserritar bat esate baterako. Eta orren ondorio bezela, euskalgoroari dagokionez, berriz, zer esanik ez: erdera jaun eta jabe. Baiña ez genduke arritu bear, ori alde guztietan gertatzen da-ta.

Geiago ere badira, noski -pelota adibidez- baiña sagardoa eta euskera izkuntza, antziñan bezela, biak uztarri berean lotuta ikustea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Orrelako zerbait pentsatu dute Astigarraga eta Ernani'ko udalek ere, «Sagardoa txotxetik, euskara gogotik» ekitaldi edo kanpaiña antolatzekeo garaian. Euskeraz arduratu eta itzegitea bultzatuz, leengo giro ura berpiztea da beren aalegin guztia. Besteak-beste, eta egokiagorik zer, bertsolari jaialdi edo saioak eratuko dituzte sagardotegietan martxoaren azken aldera bitarteko asteburuetan.

Zerbait egin bearra dagola ez dago dudarik, eta egiten dan guztia eskas izango da; txalogarria, beraz, Ernani eta Astigarraga'koek artutako asmoa. Baiña, euskerak bizirik iraun dezan, kanpaiñak egiten ibili bear al dugu bati? Nik dakidan batek esango luken bezela: «Ondo jaiok gauden orduan!» Geure burua euskalduntzat daukagunok, itzegitera bultzatu bearrik ez al digu zer pentsaturik ematen? Beste inon gertatzen al da orrelakorik? Naiko lan...

Kanpaiñak etenik gabekoa bear du, eta gutako bakoitzak egin genezake, egunik-egun, gabiltzan tokian euskeraz mintzatuz. Orixe litzake kanpaiñarik onena. Zertarako balio digu, izan ere, izkuntza baten jabe izateak erabiltzen ez ba'dugu, begirunik ez ba'diogu eta, agian, maitatu ere egiten ez ba'dugu? Ez al gera konturatzen bera dugula altxorrik baliotsuena? Edo, azkenean, euskaldunok euskeraz itzegiteagatik saritu egin bear al gaituzte...?

Aspalditxo joan zan kulpa guztiak botatzen genizkiona. Ura zan erruduna eta eta eragozpenak jartzen zituana. Eta orain? Ez daukagu inora joan bearrik... Gauden ixil-ixilik. Baiña, baliteke egunen batean kontuak eskatzea!

D.V. 8/3/1.991